

- BALOREZKO PROPOSAMENA

Balorezko proposamena, bezeroei zerk nahi edo betebehar asetzen edo eskaintzen dieguna da, produktuen edo zerbitzuen bidez. Edonori gerta dakioke noizbait, zerbait galtzea eta denbora pila bat ematea hura bilatzen; hortaz, ez aurkitzea edo ez gogoratzea non utzi duen. Esate baterako, mugikorra, giltzak, umearen zupakia, diru-zorroa... Gure proposamenaren bitartez, ohiko arazo hauek ekidin daitezke. Kolore eta eredu desberdineko mugikor-zorro eta giltzatako batzuk egingo ditugu, non chip-a barneratuta edukiko duten.

Horretaz aparte, beste gauza ezberdin batzuk lokalizatzeko ahalmena emango duten chip solteak eskainiko ditugu; adibidez diru-zorroan, txupetetan edo dena delakoan jartzeko. Chip hauek, pin batean txertatuta egongo liriateke, modu diskretu eta estetiko batean ezkutatuta.

Produktu hauen funtzioa galdua dauden eta hortaz berreskuratu nahi ditugun gauzak aurkitzea izan arren, gertaera hori ematean sentitzen dugun estresa eta zoramen sentimendua ekiditea ere bada.

Puntu honekin amaitzeko, ez dugu ahaztu behar enpresa honen gizarte erantzunkizuna. Gure irabazien %6a Unicef ONGra emango dugu beharra dutenei gure laguntza eskainiz.